


## Pestizidak, ugalketaren etsai

Zenbait intsekturen kontra masiboki erabili izan den DDT izeneko intsektizida giza osasunarentzat kaltegarria da oso, EEBBeko EPA Ingurugiro Agentziak Nature aldizkarian argitaratu duen ikerlanaren arabera. Jakina denez, DDT izeneko pestizidak gaixotasun tropikalak kutsa ditzaketen intsektuen kontra erabili izan zen berrogeiko eta hirurogeiko hamarkaden artean herrialde industrializatuetan. Gerora, eta ordeko pestiziden bideragarritasuna frogatu ahala, produktu horren erabilpena mugatuta geratu zen. Nolanahi ere, garapen-bidean dauden herrialde gehienetan DDTa da oraindik zenbait intsekturen kontrako erabilpen bide bakarra eta masiboki erabiltzen da. Jakin berri dugunez beraz, erabilera horren ondorioak oso larriak izan daitezke epe motzera. EPA-

EPAren txostenak dioenez, DDTak ondorio kaltegarriak eragiten ditu gizakion eta animalien ugalketaren.



ren txostenak dioenez, DDTak ondorio kaltegarriak eragiten ditu gizakion eta animalien ugalketaren aparatuetan. Laborategian baieztatu denaren arabera, DDTaren osagaietako batek, p-p'-DDE izenekoak, testikuluek jariatzen duten hormona androgenoaren, hots, testosteronaren ekoizpena mugatu egiten du.

## Alzheimerraren hirugarren eragilea

Alzheimer gaixotasuna gero eta ugariagoa da gure artean. Diagnostiko-bidez atzemandako gaixotasunaren agerpen desberdinetara zein genek eragiten duen aztertzen dihardu makina bat ikerlarik eta oraintxu, hirugarren eragile bat detektatzea lortu da. 14. kromosoman aurkitu dute S 182 proteinazko genea eta lehen hipotesien arabera, alzheimerkasuen % 70 horrexek eragina da. 1992. urteaz geroztik horren bila ari zen nazioarteko ikerlari-talde bat eta jadanik bidearen arrastoa atzeman dute. Edonola ere, bidea

urratzen segitu beharko dute, S182 proteinaren funtzioak eta gaixotasunaren jatorrian duen eragina argitzeko.

## HIESa eta sendabideen konbinazioa

HIESaren birusek kutsatutako pertsonen bizi-itxaropenak hasieratik ezarri zaien tratamendurekin lotura zuzena du. GIB edo Giza Inmunoeskasiaren Birusa azaldu orduko zein tratamendu erabili den jakitea faktore erabakiontzat jo da azken urteotan HIESak eragindako hilkortasun-dinamika ulertzeko. Sendabide eraginkorrena bi antibiraletan nahasketan oinarritutako sendabidea dela uste da: tratamendu hori hasieratik erabili duten gaixoen artean, % 38an gutxiago da hildakoen kopurua 1992az geroztik. Antibiral bakarra erabili dutenen artean ordea, berean mantendu da hilkortasunaren joera, goraka alegia. Britainia Handiko ikerlari-talde batek eman ditu datuok ezagutzera. HIES-aren kontrako tratamendu berriak ikeritzen ari da taldea eta eraginkortasun-maila desberdinak atzeman dira tratamendu konbinatua eta tratamendu sinplea jaso duten gaixoen artean. Gaixotasuna agertu orduko sendabideen konbinazioa bultzatzean omen dago gakoa.

## Zundaren on-gaitzak

Gorputzeko hodi edo barrunbe batean likidoren bat sartu edo ateratzea ahalbideratzen dute zundek. Berriki jakin ahal izan dugunez ordea, zundak



Frantziako Epidemiologia Institutuak burutu berri duen inkestaren arabere gertu-apatuaren infekzioak noren baino askoz ugariagoak dira zunda maiz erabili duten gaixoen artean.

dak maiz erabili behar izaten dituzten gaixoen gan bestelako eraginik ere izan dezakete tresna luzeska eta mehe horiek. Frantziako Epidemiologia Institutuak burutu berri duen inkestaren arabera, gertu-apatuaren infekzioak normala baino askoz ugariagoak dira zunda maiz erabili duten gaixoen artean. Ondorioz, zundak behar-beharrezkoa den kasuetan soilik erabiltzeko gomendioa eman dute.